

**TRIPOT, LEHATXUN, EZ ADIORIK:
EUSKAL ATLASAREN INFORMATIZATZEKO BIDEAN EPAN-
TXU ZENBAIT**

Donostia, 1990-III-30

Xarles Videgain

Euskalerriko Hizkuntz-Atlasaren informatizatzeke alartzean gaude-
larik, inkestagintzan bildutako datuak zein diren erakutsi nahi dut. Datuek
berek frogatuko dute araz korpus oso horren informatizaztea ez dela lan
errexeta eta laburra izango.

Hiru adibide hartu ditut, beraz hiru galdera eta bakoitzak inkestatu
ditudan herri zenbaitetan zernolako erantzunak eman dituen azalduko
ditut, komentario labur batek markatuko duelarik nolako epantxu, traba
eta poxeluak behar ditugun gainditu, informatizatzeke bidean ez bagara
behaztopatu nahi.

Baliatu den metodologia da Euskal Herriko Hizkuntz-Atlaseko Zuzen-
daritza Teknikoan landu duguna Gotzon Aurrekotxearekin.


Inkestan entzundakoa kuaderno batean irakurtzea ez da oso errexeta,
ez bait du etenik gabeko irakurketaren egitera uzten hautatu dugun
transkribapen-motak. Nahi ta ez, lekukoaren jariora mozturik agertzen da
gure erantzun-kuadernoek daukaten egituraren arabera moldatua izanik.

Lexikoaz ari diren galderetan, ahalaz erdera ez da erabiltzen, Perifra-
si baten bitartez erantzuna ateratzen edo idokitzen zaio lekukoari. Batzu-
tan "realia"-ren argazki edo eskema batekin, lekukoaren lana laguntzen
da. Hauek guztiak fitxetan dauzka inkestaegileak, begien aintzinean. Adi-
bidez, galdera-fitxa batek (1. irudia) galderaren zenbakia, erdal adieraz-
leak, perifrasi bat, erantzun posibleak, eta beste nota batzuek aurkezten
ditu. Ondoan (2. eta 3. irudiak), marrazki bat erakusten da beste fitxa
batean.

Inkesta magnetofoniar hartu ondoan, transkribapena egiteko ere fitxa-
eredu bat badago eskuz betetzen dena. Hutsik ikus daiteke 4. irudian,
bainan toki bakoitzean zer markatu behar den esplikatzeko da; 5. irudia
eskuz egindako fitxa baten kopia da: Ezterenzubi herrian "morquilla-
boudin" galderari emandako erantzuna hain zuzen.


2 ^o NE		SARRERA		
42.10		5 moyens de transport en zone accidentée		6 formas de transporte en zonas accidentadas
8 GALDERA	9 IRUDIA	10 PERIFRASIA		
	+ †	E Belarra nola ekartzen da etxera leku menditsuetan orgetan ezin bada ibili ?		
11 ERANTZUN POSIBLEAK		F		
Lehatxun BN Δ		1. lehatxun 2. milira ↓ b emaste ↓ oaderra ↓ sutilla, bigorra belarra		
		G		
		(herri gata) ↓		
12 OHARRAK		L ⇒ alhasats 7c BN kalakaga Z ikatrain Ec chertian. Sc		

1. irudia



ALG 345

2. irudia



Zenb.	A	Lek.	B	Zint.	C	Zin.	D	Ezezko datuak	K
1.	Testuing.		E					1.	_____
	Alf. Fon.		F						A: GAIDERAREN ZEMAKIA
2.	Testuing.		G					2.	_____
	Alf. Fon.		H						B: LEKUKOAREN "
									C: ZINTAREN "
								3.	_____
									D: ZINTAREN DESPLAZAHEVUA
								4.	_____
									E,G: ERANTZUAREN TESTINGURUA
									F,H: ERANIZUNA, FONETIKOKI
								5.	_____
									I: LEKUKOAREN OHARRAK
									J: TRANSKRIBATZAILEAREN OHARRAK
								6.	_____
									K EZEZKO DATUAK
									1. Erantzuniaz, edo mehez
									2. Duda erantzunaren egokitasunaz
									3. Duda transkribatpenaz
									4. Erroreaz
									5. kof. gramatikoko
									6. Besteak
								7.	_____
								8.	_____

4. irudia

hutsak eta interesa azalduz, galdera bakoitzaren inguruan bildu dena laburtu aintzin.

Azkenik, eta ingenuitate iraunkor baten kontra altxatuz, mapa bat fotografia hutsa ez delako ideia azpimarratu nahi dut. Mapa eraikitzen dela, mapa bat, perspektiba ta guzti, eraikidura dela aipatzen dut.

Goazen bada lehen galderak eragin dituen erantzunen irakurtzera.

GALDERA: 42.10 “Formas de transporte en zonas accidentadas”; “formes de transport en zone accidentée”.

Perifrasia: belarra nolaz ekartzen da etxera leku menditsuetan orgetan ezin bada ibili?

Herria: BAIGORRI LEK . 1 Zint. 10A Zm. 229.

ERANTZUNAK:

1. bost [lehac2ún] (1)...I. (I= Izena)
2. [mihislé] (2)...I.

Lekukoaren oharrak:

[lehac2únak]. Baut zenbeit iiliik, hola sartzen zen hanitz belhar. Eiten zen mahaiak itzulikatuz, egiten ziren puloak eta bizpahiruekin eiten zinin [lehac2trunta] edo [sama].

- (2) re ezagutu dut, bazuen izena, zakukiaz egina (gizonek ere eremaiten).

Transkribatzailearen oharrak:

1. “lehatxunak” pluralean ontsalaz.
2. Izen zehatzagoa baduke.
3. [sakukij]: “toile à sac, jute”?

Metodologia-oharrak

1. Arazo bat bada galdera honetan: galdera ez da bakuna, (“formas de transporte”). Ondorioz, erantzunak beraz bikunak dira askotan. “forma de transporte” zein den zehaztu behar da, lexema berezirik badenetz bilatuz.

2. *Lehaxtrunta* eta *zama* ez dira markatuak izan oharretan: interesa badute metrologiaren aldetik (lexikoa, entziklopedia), eta lehen hitzean morfologiaren aldetik *-tara* atzizkiaren aldaerak biltzekotan, *orgatara*, *besatara*, *altzotara* hitzetan bezala.

3. *Zakuki*: erreferentea dudazkoa da. Datua haztatuz inkestaegileak ematen dion fidagarritasun-maila kontuan hartu behar du sistima informatizatuak.

4. *Mihise* erantzuna; izan generikoa ote da (hiperonimoa)? ala lexia zehatza? Horren ikusteko erreferentzia gurutzatuen posibilitatea eman behar du sistima informatizatuak, beste galdera batzutarra igorritz: “drap”, “couverture” galderetara bederen.

5. *Lehatxun* erantzuna: gehienetan pluralean erabiltzen dela apuntatu da. Mapan agertuko den ala ez hautatu behar. Arazo berdintsua duela daukaten izenekin (zer da “orga pare bat?”: “une” edo “deux charrettes”?).

Herria: ÜRRÜXTOI Lek. 1 Zint. 12 B Zm. 222.

ERANTZUNAK:

1. bost [ihácyn] ...I.

Lekukoaren oharrak:

[ihácynak],

I. mihise batekin?

L. undarrak emazteek eta xehea zelaik.

Transkribatzailearen oharrak:

1. pluralean.

2. [espáta]: =42.10.1.

3. teknologiaz, testu bat emaiten du, ez transkribatua.

Metodologia-oharrak

1. Lekukoak eman duen testua ez da osorik transkribatua (bihar etzi egingei).

2. 2. galderari lekukoak ez du adierazlerik eman: ezezko datu gisa trata diteke.

3. Informazio berri bat: *mihisea* emazteek eramaiten dutela, belar-ondar xeheak etxeratzeko (segur aski bigarren pusakoa, sohoa, bibedarra edo ardaila biltzeko).

Herria: EZTERENZUBI Lek. 1 Zint. 2A Zm. 387.

ERANTZUNAK:

1. bi [lehác2un] ...I.

2. [marrára] batian ...I.

Lekukoaren oharrak:

[lehác2una], ari izan niz bana ez etxian, auzotan bai. Laguna behar duzu ahalaz, eta ez balin bada, zuhauk inen duzu, ez hain haundia, altxatzeko, kintal bat, berroitamar kilo, berdin hirutanoi kilo, eta gio hartu eta tinka.

I. (estalgiairekin).

L. Lehenor iten zen, undarrak, azken undarrak e, marrara batian, hori lehenogoko moda.

Transkribatzailearen oharrak:

1. 2. erantzuna, ez ongi entzuten.
2. "mazka" zer den ez daki.
3. [kintal]: 50 Kg. ik. metrologia.

Metodologia-oharrak

1. Metrologia: *kintala* 50 kilokoa dela ikusten da.

2. *Marrara* bestalde, behien gainean emaiten zen estalgiaren izena daiteke: hemen ere generiko/ez generiko pareta.

Herria: URDIÑARBE

ERANTZUNAK:

1. bost [lehác2yn] (1) ...I.
[lehác2ynak] ...I.
2. [behimanta] ...I.

Lekukoaren oharrak:

hori mazkatzez egiten dük, atheka ezartia dük; zankhoakilan tinkhatzen eta mazka egiten dük...
undarrak manta batekila...
jende gehitia...

Transkribatzailearen oharrak:

1. testu bat teknikaz; 5, 6, 7, 8 mazka lehatxunetan, 50 kg;
2. [maska]: ik. metrologia.
3. [ma:skáty]:
4. [atheka] "en tas, par tas". "atheka ezartia".
5. [gehitü] "adulte".
6. [espáta]: ik. ikonoa.

Metodologia-oharrak

1. Testua ez da hitzez-hitz transkribatua.
2. *Manta* erantzuna: generikoa ote da?
3. *Mazka*; metrologia. Azkue-k emaiten duen hitzaren erran nahia zehazten da.
4. *Ezpata*: lexiko teknikoa + ikonografia.

Herria: SANTA GRAZI Lek. 1 Zint. 15B Zm. 042

ERANTZUNAK:

1. lau [ehácyn] (1) ...I.
2. [mánta] (=couverture) ...I.

Lekukoaren oharrak:

Egiten güntian. [espáta], [barra], [korda], eta [ba:], [s2ilho], eta [c2oc2]. [has2e] ederra ekharten: 80 kilo re, haurrek 15 kilo, [fanfarrü] ziren.

Gio [unddárak] mantan ezar eta barneat,

Transkribatzailearen oharrak:

1. [espáta], 42.10.2.
2. [barra], 42.10.1.
3. [korda], 42.10.3.
4. [ba:].
5. [s2ilho] “trou”.
6. [c2oc2] “cheville”?
7. [has2e] “charge”
8. [fanfarrü] “fier, pas un peu fier”.
9. Cf. testu osoa ez da emaiten.

Metodologia-oharrak

1. Zatien izenak lortu dira: lexiko teknikoa.

Herria: ISTURITZE Lek. 1., 3., ZInt. 5A Zm. 652.

ERANTZUNAK:

1. lau [leyácun] ...I.

2. [kalen1ka] L1, ...I.
[marrhéa] L3, ...I.

Lekukoaren oharrak:

L1 Hemen ezta patarrik, lehen kalanka-, behi-estalgia ziren. Behar zen jakin ezarri eta estekatu eta beharraen gakhatzen, baziin emaztiak gizonak baino hobiak zirenak (...), giiletik hasten da, gakhatu behar da, emeki emeki behar zen eta behiak desatelaturik, Heletako historia, bazen gizon bat biziki belhar-kargazale ederra. Norbeitek galdein zakon: hik orgabelhar ederraen kargatzeko ze nahio duk? emaile bat ala biga? -A, nik baño nahio diat eta hua auherra! Bekhan ekhartzen zakon belharra eta bazen gehio denbora orga-belharraen arrañatzeko.

Transkribatzailearen oharrak:

1. [legac2unak], pluralean.
2. “kala/enka”: “couverture: generikoa?”
3. [gakhatu]: “bloquer, faire tenir”; ik. “giltz-, gako,” in ...de vouîte, de bloquage”.
4. Testua igor 42.11 galderarat: “fouler (le raisin)” ez da “orga in”, orga egitea ez baita nolaznahi egiten: ik. lanari buruzko omore oneko narrazioa.

Metodologia-oharrak

1. *Kale/anka*: 1.1. duda, transkripzioari buruz: e/a. 1.2. duda, semantikari buruz: hiperonimo/hiponimo.
2. *Behi estalgia*: egiazko erantzuna den ala paliatiboa ez da aipatzen.
3. *Eder* hitzak hemen duen balioa ez da apuntatu: =*ona*. Alta ez da Bizkaian bildua.
4. Narrazio etnografiko bat bildu da: “*orga egiten*” zer den azaltzen du: lan hori nolanhizka ez ditekela burura adiera-araziz.

Herria: LARRAÑE LEK.1 Zint. 10B Zm. 213

ERANTZUNAK:

1. Bost [ihá~cyn] (1) ...I.
2. [behimánta] (2) ...I.

Lekukoaren oharrak:

[ihá~cy'nak], [behimántal]

[espáta] 42.10.2

[ihá~cymba] 42.10.1. (?)

[ihá~cyn1khorda] 42.-10.3

+ kablian ere bai behiekin, Ganian bobinan polia ezar eta borda ondun, behi-paria kable phuntan atelutzen zen (..) eta [has2e] eginik, erauntsi dūgū ba, liga (?) behar zen ahin

I. Airez?

L. Ez, ikhusi bai nabetan.

Transkribatzailearen oharrak:

1. "iha~txūnak" pluralean.
2. "manta" guti baliatua dela.
3. [kable]: "câble" + testu bat kableari buruz.
3. "ezar": gramatika, aditz-erroaren erabilera preskripzioa ulert-arazteko ("mode d'emploi").

Metodologia-oharrak

1. 2. oharrean *manta guti baliatua dela* dioelarik, zertaz ari da inkesta-egilea, adierazleaz ala erreferenteaz; hitzaz, ala teknikaz?

2. Kablearen teknika ere aipatzen da.

3. Lexiko teknikoa: zatien izenak bildu dira. *Ezpata-ren* adiera teknikoa Azkuek eta Lhandek ez dute emaiten.

Herria: LARZABALE Lek. 5 Zint. 9A Zm. 598

ERANTZUNAK:

1. bost [lehác2un] (1) ...I.
2. [marrhéra] (2) ...I.
- ◆ [mihis1e] ...I.

Lekukoaren oharrak:

L5 izan nuzu bai khotxia re! behien eamaitia ez balio, eta sohoa sartzen, hartako doia izan nuzu. [lehác2unak] guhauk iten. Bi zur, khorda bat, haga bat eta ardatz bat dena xilho, eta tinkhatzen? eamain duzu bona behar beita balentza atxiki, guk zazpi mazka iten gintzin, zazpi mazka, belhaunain kontra arrasteliaekin tinkhatzen, besoen ahalako (?) paketa, guk zazpi ezartzen gintzin lehatxunetan. Belhar-mazka, belherra hola bildia belhaunain kontra: naian kurrituz, bil, bil bil, eta joan besoen izarirat, in artio, hua ezar hor trebes, eta gio haga gainetik eta tinkha eta buria hortxe; altxazaliak launa behar zi.

(2) undarren biltzeko, phentzeko undarrak, marrhera erten diziu guk, bes-tek mihise.

Transkribitzailearen oharrak:

1. "Lehatxunak" pluralean.

2. “Dena xilho” estatus gramatikala?
3. [balenca] “équilibre”.
4. [maska], [belharmaska], ik. metrologia.
5. “Izari”; “measure”.
6. [undar] eta [unddar]: “restes”; palatalizazioa.
7. [hartakoðoja]; frantsesez (“juste assez, suffisamment pour pouvoir en parler”).
8. “bil, ezar, tinkha”: aditz-erroaren erabilera.

Metodologia-oharrak

1. *mihise* hitza eman du lekukoak berak, bere idielektoan ez jela sartzen zehaztuz. Egiazko “ezezko datu” gisa tratatu behar dea?
2. *Ezar*: ohar gramatikalak, egiten dira bidenabar. Errangabe doa inkesta-egilearen gain dagoela holako oharrak egitea edo ez egitea. Inkesta-egile bati ohargarri zaiona, beste bati interesik gabekoa litzaioke.

* * *

Ordu da 42.10 galdera honen inguruan bildu duguna laburzki meta dezagun atlasaren sabaian.

1. Erantzun bakuna ez da; galdera hau mapa bakar batean tratatzea ez da ona izango: ikus bestenez, eta bestalde ongi egina den “Atlas du Massif Central”-ean nolako nahasteak ekartzen dituen item bi tratatzeak mapa bakar batean. Hortik ateratzen den ondorio orokorra da galderen kopurua eta mapen kopurua ez direla berdinak izango.

2. *Lehatxun* lemaren inguruan: pluralean erabiltzen den ala ez apuntatu behar luke inkestaegileak.

3. *Mihise, marrera*, etabarren inguruan: hiperonimiaren arazoa.

4. Maparatzeko tenorean, iduriz, *lehatxun* kasuan, mapa monolexe-matikoa liteke hemen hautatu 8 herriek osatzen duten eremuan.

- 4.1. *lehatxun* lemarekin ikerketa fonetikoa egingo da ondoko fenomenoak berezituz gutienez:

± hasierako kontsonantea.

± *i/e* hasierako bokalean.

± ü.

- ± sudurkaria.
- ± g/h alternantzia.
- ± korrelazioak: i-ü/e-ü.

Bidenabar erran dezagun EHHA-ko galdakizunean ez dagoela galdera berezirik [y] bokalari buruz. Dudarik gabe, mapa bat edo bat baino gehiago egingo da fenomeno fonetiko honetaz, errealizazio fonetikoetan [y] noiz eta zer baldintzetan agertzen den ikertu ondoan, tratamendu informatizatu baten bitartez. Beraz [y] galdera ez baldin bada agertzen galdakizunean, [y]ri buruzko maparik izango da atlasean.

4.2. *Mihise/marrara/manta (+behi-manta/kalenka)*. Hemen mapak erakutsiko du 4 lema bederen, maparik egiten baldin bada.

5. Mapez bestalde ohargarria dena:

5.1. Lexiko teknikoa bildu da: metrologia, tresnak, lana, belarra eta abarren alor semantikoetan.

5.2. Narrazio etnografikoa.

5.3. Informazio enziklopedikoa: tresna bakoitza non, nork, nolaz, noiz, zertarako baliatzen den/zen. Galdera honetan beste zenbaitetan bezala, gerta daiteke interesgarria izaita hitz baten iraupena erakustea mapa baten bitartez:

– Hitza ez da ezagutu.

– Hitza lehen ezagutua zen, orai ez.

– Hitza orai ezagutzen eta baliatzen (atzean erreferenteari buruzko informazio enziklopedikoa ezinbestekoa da). Ondorioz, bere mailan, diakronia ere agertzen da atlas batean.

* * *

Bigarren adibidea ikus dezagun “morquilla-boudin” galderarekin.

GALDERA: 27.44. “morquilla”; “Boudin”;

Herria: MUGERRE Lek.1 Zint. 6B. Zm. 472.

ERANTZUNAK:

1. 5 [oólg] ...I.
2. 5 [oóólg] ...I+

Lekukoaren oharrak:

Bost [biri] lodia delarik.

Ezezko datuak:

“Tripot”? ◆

“Galapart”? ez.

Transkribatzailearen oharrak:

1. Ikus bi aldaera fonetikoak.
2. “Biri” zer den ez da zehaztu.

Metodologia-oharrak

1. *Biri* zer den ez da zehaztu. Alta, gero ikusiko den bezala balio zukeen gehiago barnatzea.

2. *Tripot* ez dela bertako hitza argi da.

Herria: BAIGORRI Lek.1 Zint.7A Zm.220.

ERANTZUNAK:

1. bost [odolgi] ...I

Lekuoaren oharrak:

ardian, tripota egiten da eta xerrian odolgia bost [tripot].

Ezezko datuak:

“Tripot”? ◆ # +, ; (ikus berak errana)

“galaparta”? ez.

Transkribatzailearen oharrak:

“Tripot” eta “odolgi”: bi erreferente desberdin.

2. BAIGORRI.

Metodologia-oharrak

1. Garbi da *tripot* eta *odolgi* bi adierazleak ezagutzen direla bainan bakoitza bere adieraziarekin.

2. Horrek badu bere ondorioa maparako: ezin da mapan ulerterazi *tripot* hitza ez dela ezagutzen Baigorri. Ezezko datuen metodologiak abantail hori badu, baizik eta galdera onomasiologikoak agerterazten ahal ez duenaren berri emaiten ahal duela.

Herria: LARRRAÑE Lek. 1 Zint. 15A Zm.066.

ERANTZUNAK:

1 Bost [tripót] ...I.

Lekukoaren oharrak:

[goilpeuína] (2) da gaiñian den hua, bexten düzü eta pian [goilpe]. Huak bazizün bere jokhoa re. Goipe-uina beiatzen züzün kürioski.. Lehen astuk zorritz betheik beitziren ordin hua frikzionatzen eta gaitzi ziezün(3) zorrier urina(4), zamarro(1) haundi beitzen, berdin behier.

Transkribatzailearen oharrak:

1. [samarro]: “poils de l’âne, toison”.
2. “Goipe-uina”: “sorte de graisse qui se dépose lorsque se refroidit l’eau dans laquelle on a fait bouillir les boudins”. “tripotak egos-arazteko baliatu den uraren hoztearekin agertzen den urin mota hua” (mugagagabea ez da bildu).
3. “Gaitzi ziezün”; egitura sintaxikoa: nor-nori
4. “Urina” ala “urrina” erran duen egiaztatu behar
5. Etnografia; medikuntza; hazkuntza;

Metodologia-oharrak

1. Ezezko daturik ez da proposatu: ezin jakin beraz *odolki* ezaguna den.

2. Lexikografia: *goipe-urin* lemaren pean, definizio tekniko bat agertzen da eta jakitate enziklopedikoa, hitz-giltzen bitartez kontsultatu behar ko dena. Segur aski ere Begriffsystem bat egokitu behar ko da.

Bidenabar, beste hitz batzu ere bildu dira. Halere lematizazioa egiteko da. Erabakitzekoa da ere definizioaren arazoa:

2.1. Lekukoan hitzak berak kopiatuz eman behar dea? Askotan definizioa oso zehatza da alderdi zenbaitetan bainan definizio batek bete behar dituen baldintzak, ulertzen den bezala, lekukoak ez ditu kontuan hartu, ez hartu beharrik ere. Gainera, ahozkotasanaren ezaugarriak bada-ramatza berarekin.

2.2. Inkesta-egilearen hitzetan (eta zein hizkuntzatan) eman behar dea? Lexikografiaren araudiak jarraiki behar orduan.

3. Enziklopedia, etnografia.

4. Egitura sintaxikoak biltzen direlarik, gero nola konsulta indexaziorik gabe?

5. *Kurioski* ez da aipatzen: oharra merezi luke hitz horrek etimoari hurren zaion erran nahia bait duke: “arta haundiz”, fr: “soigneusement”

eta ez gaurko frantsesaren “curieusement”. Kontrastea ttipiagoa izanik (cf: espainolezko “curioso”), beharbada ez liteke aipurik egin hitz hori hegoaldean bildua izan balitz.

Herria: EZTERUNZUBI L.1 Zint.2A Zm.122.

ERANTZUNAK:

1. Lau [tripót] ...I+

Ezezko datuak:

a “odolki”? ◆

Lekukoaren oharrak:

[trípotaegós1kina] erten giniin guk urin zerbait, kaalen minen eta hola, bil-tzen zen.

1. Eta orgen?

L1. Bai, bai, xuxen zira, orgen natxain hartaz iten zen etzen oai bezala grezaik...

Transkribatzailearen oharrak:

1. “Tripota-egoskina”: “sorte de graisse résiduelle qui se forme après qu’ait refroidi l’eau dans laquelle on a fait bouillir les boudins” (mugagabea bildu gabe).

2. Etnografia; medikuntza; hazkuntza; teknologia;

3. “Greza”: “graisse”, iduriz mekaniketan baliatzen den ekaiaz erraten da. Ikus 27.53.

4. [s2us2en] izan: “avoir raison, être dans le vrai”.

Metodologia-oharrak

1. *Tripot-egoskina*: forma mugagabea ez da bildu, (ondorioak lexi-kografian). Nola ikus daiteke bestalde Larrañeko *goipeuin*-aren sinonimoa dela? Datu base informatizatuak sinonimoak elkarretaratzeko bidea pentsatu behar da. Lehenago aipatutako Begriffssystemaren beharra areago-tzen da.

2. Inkesta-egileak ez ditu apuntatu: *zerbait*-en erabilera, determi-nante gisa (*urin zerbait*); *natxa* hitza (“*essieu*”).

3. Interes lexicografikoa: *tripot-egoskina*.

4. Neologismoa: *greza*.

5. Fraseologia: *xuxen zira*.

Herria: LARZABALE Lek.4 Zint.7B Zm.558.

ERANTZUNAK:

1. Lau [tripót] ...I+

Ezezko datuak: (ez dira proposatuak izan)

Lekukoaren oharrak:

[oðolgi]... (beste plat bat egiten dena # “boudin”).

L4. [koi]peurin], koipe-urin, koipe-urina, hua tripota egos eta bertza uzten duzu han, eta hari iten duzu urin bat zuri zuria, hua [goi]peurina], hua biltzen gindizin ta leheno garbiki iten bazen, jateko, ezpizten oai bezala eta jateko. Bestela, orgen urindazteko, or..., orga ta maxinak, ez ezpizten grezaik, natxen eta, gaixoa. Goipeurina ohit nuzu, urin axaleko garbi hua berex biltzen, uringatzgabia, eta gerla-denboran ikhusi tzit hoi, hamalauueko gerla-denboran, ttipia nintzun...

Transkribatzailearen oharrak:

1. “Goipe-urina” eta “koipe-urina”: bi errealizazio; iduri luke enfatikoa dela [k]rekilako forma (?).

2. “Couche de graisse à la surface de l’eau ayant servi à faire bouillir les boudins”.

3. “Greza”: “graisse de machine”.

4. “natxa”: “essieu” ikus...

5. etnografia; elikadura + gosetea; teknologia.

Metodologia-oharrak

1. *odolgi* zer den ez dakigu xuxen, edo inkesta-mementoan ez baita galdegin, edo transkribaketa-mementoan ez baita apuntatu zehazki. Bigarren entzuketa batek erremedia lezake ahultasun hori. Badakigu halere adierazle hori badela, eta bere adierazia ez dela “boudin”-arena.

2. Ez apuntatu: *uringatzgabe* “saindoux”; *egos eta* egitura (aditz-erroa); *zuri zuria* (palatalizazio-eza); *ohit nuzu* (“je me souviens”); *berex* adberbioa etabar...

3. Lexikografia: *goipe-urina*, *koipe-urina*: informazio zehatza emaiten da zeinu honi buruz.

4. *Koipe*. [k]agertzea [g]ren ordeztzen ahal da “fonetika adierazkorraren” aldetik. Beste nonbait *kaixto* erraiten du *gaixto*-ren orden. Batetik, fenomeno konkretu hau ez da oso ezaguna, bestetik, haren maparatzea ez dugu erabakita. Halere datua konsultatu beharko da sistema informatizatuari esker, edo bestela erranez, sistema informatizatua izanagatik.

5. Neologismoa: *greza* hitza bigarren aldiz agertzen da erantzun batean (*urin, gantz, goipe-urin, hitzen ordez*).

Herria: ISTURITZE Lek.1 Zint.11A Zm.499.

ERANTZUNAK:

1. [tripóta] ...I+

2. ♦ [oðólgj] ...I+

Ezezko datuak: (ez dira proposatuak izan)

Lekukoaren oharra:

odolgia, izaitekotz hor, kostaldeat, Laphurdirat ba. Bada ere jaunpiro.

I. Zendako jaunpiro?

L2. Bakharra beitzen halakoa, buru batekin baxharrik, ardiena luxe luxe da, hua re, hertzemutia, hertsia.

L1. Tripota bezala bethetzen eta, luzia da eta biribila erdian puxka at.

L2. Hua azkenik jaten zen eta.

L1. eta ederro ta etxia aberatsoo.

L2. Tranxaka pika ta hua zarteinian beotzen zen bi eskualdetatik berriz.

L1. Lehenon piroa ederra kasu! ta azpitik loturaekin ni orhitzen niz ezarria, ezbeitzen, sobera kharga beitzian, bere burian atxikitzeko oihal xuri batekin bizpahiru egunez, zeildu artio, ah, ah! Hola luze, bena biribila re hola eh! aise.

L1. Hola re, hola.

L2. Aise, zaalago re! Urde zaharren hertzia!

I. Uste nuen arrunta zela.

L1. Ja, ja

L2. ja, ja, ja, hua zen erregia.

L1. Poxa, poxa, à l'appendice.

L2. Gio kukusoa, ardiak du tripan eta lau estomaka hetaik, la panse, le feuillet, la caillette, eta zer du izena frantsesez? nahasia niz, ba. Kukusoa bada, bada phantzoila, ttipi bat, phantzoilari lotia da kukusoa; hartarik pikatzen da hua, bana barnia re tapizatia du dena, dena losanja ttipi. Behiak e badu, bena behi-tripa ezbituu ardiarena bezala ezautu; ardiaina duu ikhuzten guk.

I. Gaskoinez "le püs" erten baitute.

L2. Hua ditake, kukusoa; eta gatxagia, c'est la caillette, luze bat, ça a la forme d'une cornemuse, luzea; eta kukusoa, dena errondan, dena losanja du barnian eta gio hek karrakatzen dire,

(gehitu behar 27.50.galderan diotena):

L1. Arditripa odolgia da, ardiki-odolgia;

L2. Eztuzuia behin e jan?

L1. Tripotxa.

L2. Zazi Ezpeleata eta chez Massonde, hak batu tripotxa bethi. Aldi bat jastatzen bauzu, inposublez berriz hartuko uzu, hak iten tu. Ahatik ez dira bakharrik ardikiarekin inak, ardikiarekin bakharrik in eta, hoztiarekin zilhoa heldu zako, eta hak aatxeki edo zeit emaiten du, goxo goxoak dira bethi.

L1. Baute gostia, ardiki-odolgiarena.

Transkribatzailearen oharrak:

1. “odolgi” L1.ek berak eman du, inkestagileak aurkeztu gabetarik. Bainan ikus 27.50. galderan gehitu diotena, zehaztasun zerbait ekartzen duena. Ik. [tripó-c2a], [ardikioðolgi] erreferente berdina ez dutenak.

2. [isai]tekoç: “plutôt, il me semble, à tout prendre” (“hautuan”, ikus Bizkaian entzuten den adierazi bertuko “aukeran”).

3. “Jaun piro”: izen propio baten estatusa dauka; hitz horren inguruan datorren testu gehiena 27.45. galderari dagokio: cf.

Metodologia-oharrak

1. *Tripota*: mugagabea falta da.

2. 27-50 galderari doakio oharren parte haundi bat.

3. Lekukoek egiazko elkar-hizketa osatzen dute bien artean.

4. *Odolgi* hitza berek emana da (ez da egiazko ezezko datua); jakitate metalinguistikoa miraila da, atlasak zubitik ala uretik kontuan hartu behar duena.

5. *Jaun piro* lexiaren inguruko informazioak.

5.1. Estatus gramatikala: izen propioa (*jaun...*) ala ez (*piroa*)?

5.2. Definizioa: itxura, non dagoen, nolaz egiten den, etabar.

5.3. Motibazioa: jaun bat da, zergatik?

– Bat eta bera izanez (tripotak hanitz dira).

– Haundiago da (tripotak laburrak dira).

– Aberastasunaren marka da (tripotak arruntak dira).

– Kalitate onekoa da.

– Jateko azkena da (“beraz” kultura honetan hoberena da: ik. Canako ezteiak).

– Erregea da (erredundantzia semantikoa: *jaun* eta *errege*).

6. *Kukuso* hitza: adiera ez dute emaiten Azkuek eta Lhandek. Gaskoinaren kalkoa den ikertzekoa da. Kate metaforikoetan indexatu behar da. “Tertium konparationae” kolore beltza liteka, *tripazuri* hitza kontuan hartzen balinbada.

7. Apuntatu ez diren fenomenoak:

– Fonetika: *zeildu*, *zartein*.

– Lexikoa: *zeildu*, *ikhuzten*, *inposublez*, *ahatik*, *aatxeki*, *jastatu*.

– Neologismoak, maileguak: *poxa* (ez *moltsa*); *losanja*, *tapizatu*.

– *Switching* fenomenoak: “à l’appendice” horrek erakusten duelarik soziolinguistikaren aldetik, erreferente garbia duela lekukoaren ustez medikuntzaren frantses hitzak.

– Etabar: *zilhoa heldu zako*, *chez Massonde*.

Herria BARKOXE

ERANTZUNAK:

1. Lau [tripót] ...I+

Ezezko datuak:

α “odolgi”? # [oðolki]; (beste plat bat, apart jaten dena ardian, odola errerik).

Lekukoaren oharrak:

L2. [goilpeuin], tripotak egin ondun, hura üzten düzü hoztea, eta badüzü holako uin bat, hollixka, lehen kabalen ilher emaiteko, eta orgen unineztatzeke, grezatzeko.

Transkribatzailearen oharrak:

1. “Goipeuin”.

2. “Hollixka”: “jaunâtre”.

3. “Uineztatü”, “grezatü”: “graisser”.

4. Etnografia; medikuntza; hazkuntza; teknologia.

Metodologia-oharrak

1. *Odolki* zer den ez da zehazten, bakarrik ez dela ez ezaguna. Fonetikaren aldetik, *l* baten ondotik, *ki* agertzen da eta ez *gi*: ez da ustegabeko berria.

2. *Goipuin*: lexikografia. Beste herrietan apuntatua konfirmatzen da.
3. *Grezatü* eta *urineztatü* sinonimo gisa agertzen dira.

Herria: PAGOLA Lek. 1 Zint. 17A Zm. 341

ERANTZUNAK:

1. [tripót] lodi bat ...I+

Ezezko datuak:

a “odolgi”? # [oðólki] bestalde düzü hua. Eta tripotak in ondun behin edo beste ikhusi iten; egiten dizie bertz zolako odola-arresta e, ezpizen deus e enphoiltzen geo, odola dena biltzen zün hasteko eta etzün dena tripotetan ezarten sobera balinbazen eta baatzen odola phasta hua, geo beste bertza hüsten zün eta undar heiekilan egiten zün odolkia, untzietan eta aizuekin uano trükada egiten zün ttiphiña ttipi batzütan, juaiten aizulat eemaiteat, eni... (ez maite berak).

Lekukoaren oharrak:

Tripota, haur lodi bat balinbada, tripota Janbiuñña, hua düzü, müthürra, jentek zer die? L'appendicite. Leheno erraiten zizien eta etxe batetan hola seindü maindiek, seindü maingiak, seindü maingiak, huk tripotak eta jinkua, jinko düzü hoi, lodia, jaunbiuñña ezaia, jinkua, galthatü ziozün hua ahatziait nola zen, galthatü ziezün eskelai bat jin eta zer tützie horiek? Harek erran ziin: oh Jinkua eta seindü maingiak zirela, eta gio ordin ebatsi zietzün ordin Jinkua ützi ziezün eta seindü maingiak eaman beekin boh ahatziait eh! bazün ba zerbeit holako istorioa.

I. Nun entzun duzu hori, Jinkoa, Jesus?

L. Ba, Jinkua ziekin eta Seindü maingiak enekin, erran ziezün eta geo tripotak ebatsi ziezün,

I. Deboziona bazuen beraz,

L. (irriz) jinkua deitzen düte zonbeit lekhütan? Nik enizün istoioa hala entzün

I. eta maingiak?

L. ba, maingiak, txankü dena...

I. Hau da?

L. Hortaik landakoak, hoi üsü eztüzü bethatzen lodiegi düzü eta ez untsa egosten, ahalaz eztizügü bethatzen

I. Igortzen?

L. Urthukitzen, eztüzü..., absolutuki behar balinbada, ezpada hertseik, ordin ezarten ba bena ez ahalaz.

Texte traduit: Janbiuñña (de “jaun” = monsieur, maître, et “biuñ”, cf. “biro”), c'est ça, le bout, les gens qu'est-ce-qu'ils ont? l'appendicite. Autrefois on disait

que dans une maison, comme ça, il y avait les saints boiteux, les saints boiteux, les saints boiteux, eux c'étaient les boudins, et Dieu, lui c'est Dieu, placé (mis comme) jaunbiuña, et alors il avait demandé, j'ai oublié comment c'était, ah oui, un nécessaireux était arrivé et il leur avait demandé; qu'est-que vous avez là? Oh, que c'était Dieu et les Saints boiteux, alors il leur avait laissé Dieu et il avait emporté les saints boiteux avec lui, bo j'ai oublié eh! il y avait une histoire comme ça

I. Où avez-vous entendu ça, Dieu, Jésus?

L. Oui, Dieu (soit) avec vous et les saints boiteux avec moi, il leur avait dit, et c'est qu'il leur avait volé les boudins.

I. Il avait de la dévotion alors

L. (riant) ils l'appellent Dieu en certains endroits Je ne, l'Histoire entendue comme ça

I. Et les "maingiak"? (l'enquêteur, pas sûr d'avoir compris se fait expliquer)

L. Oui maingiak celui qui est boiteux (txankhü)

I. C'est ça? (realia montré)

L. A partir de là oui, ceci souvent on ne le remplit pas, il est trop gros, et il ne peut pas bouillir facilement, si possible on ne le remplit pas

I. Envoyé?

L. On le jette, on ne, s'il le faut absolument, s'il n'y a pas assez de boyaux, alors on le met mais si possible non.

Transkribatzailearen oharrak:

1. "Odoikia" ez da "boudin".
2. Norbait lodi batez: esaera.
3. "Enphoiltzen": "gaspiller".
4. "Hasteko": "toujours est-il, du moins".
5. "Geo": enfatikoa, ez da denborazkoa.
6. [trykáða]: "échange".
7. Etnografia; auzoen arteko harremanak.
8. [sléiIndymailnd/gjáák], [sléindymailnlgjáák], [jlinlkwa]
9. [jlaulmbiúña] motibazioa emaiten duelarik.

Metodologia-oharrak

1. *Odolki* zer den zehatz agertzen da.
2. Esaera badu *tripot*-arekin.

3. Narrazio etnografiko bat badakar Isturitzeko lekukoek erran dutenarekin bereziki erkatu behar dena. Ene ustez, ez da jaso izan narrazio hori.

4. *Jaunbioña* hitzaren inguruko informazioak baliosak dira Isturitzeko erantzunean bezala.

5. Konfusioa eta nahastea agertzen dira erreferenteari buruz: “caecum, ciego” ala “rectum, recto”? Hemen agertzen da eufemismoaren eta tabuaren problematika. Lekuko zenbaitek “vulve, vulva” galderari *onderitze* dute erantzuna. Alta “vulve, vulva” eta “recto, rectum” desberdintzen dute, behietan behintzat (erreferenteez ari naiz, prefosta). Bestalde “jasaille/jasana” (fr. “contenant/contenu”) erlazioak badu bere eragina. Gertatzen da “caecum, intestino ciego” nahastea (beraz “jasaile”, “contenant”), boltsa horretan egiten den jakiarekin (“jasaile + jasana”, “contenant + contenu”). Nahaste hauek, normalak izanagatik, heteronimia handia errexten dute.

6. Aktibitate ludikoa eta motibazioa: euskaraz, auzoko hizkuntzetan bezala, eta kurioski nozio berak adierazteko, jinkoaren izena edo personifikazioa agertzen da: (ikus fr. “jésus”, esp. “obispo”, bable “xuaniko”, gask. “bundius”). Isturitzen ez bezala, Pagolan lekukoak dio tripotak hobeak direla janbiuña baino. Horri lotzen zaio aktibitate paródikoa, *jinkua zurekin* elizako formularen gainean eraikia, erakusten baita sainduen ebastea ez dela lapurketa handia.

7. Narrazioaren frantses itzulpen bat emaiten dut, erantzun-kuadernon ez dagoena. Espainolez, alemanez, edo ingelesez agert zitekeen. Zergatik bada? Atlasaren testuen edizioaren arazoa plantatzeko. Euskara ez dakiena, kanpoko ikerlaria izanik, zer neurritan sartuko da euskal atlasean? Galdera egiten dut.

* * *

Berriz ere, lehen galderarekin bezala, bil ditzagun “morquilla-boudin” galderak agerterazi dituen datuak.

1. Gilliéron-en lehen kolpearen teoriaren akatsa erakusten duen galdera da: lehen kolpez *tripot* biltzeak ez du erran nahi *odolgi* lema ez dela ezagutzen. Maparatzeko orduan ikusi behar da hiru egoera desberdin agerterazten direla:

1.1. Erantzun batek bestea eskluitzen du (*tripot* bai, *odolgi* ez, eta binperrez).

1.2. Bi erantzun ezagutzen du lekukoak, bata ez delarik bertakoa (bi posibilitate).

1.3. Bi adierazle eta bi erreferente baditu lekukoak. (Bi posibilitate baino gehiago, bi erreferente baino gehiago posible izaki).

2. Bestalde heteronimia izan daiteke mota askotakoa:

– Lexematikoa: *tripot/odolki/buskantza*.

– Fonetikoa: *odolki/oolgi/odolgi*.

– Maileguan, etimoan: *tripa*-tik, *odol*-etik.

– Motibazioan: jasaile/jasana, edo barnekoa/kanpokoa, ekaia.

– Semasiologikoa: *odolgi*, da:

1. “Boudin, chair de porc et...”.

2. “Boudin, chair d’ovin”.

3. “Plat formé de chair d’ovin et...”.

4. Etc.

– Konotazioaren araberakoa: on/txar/hobea.

3. Mapan agertuko ez diren testuek informazio baliosa emaiten dute:

3.1. Heteronimia esplikatuz:

3.2. Definizioak eskainiz.

3.3. Narrazio etnografikoak emanez: galdera honetan agertu da nola izendapen batek bere motibazioa hartzen ahal duen, izengoiti teoforoekin (*jinko*): sakratua zergatik agertzen den ez dugu esplikatzen, fenomenoaren berri emaiten dugu behintzat.

4. Beste xendra batzu:

– *Piroaren* etimoa aztertzea dago: Mugerren *biri* ikusi dugu; Sain-tonge herribidean “fressure” esan nahi du batetik, “birika” formarekin baduen egitekorik aztertzea da, bestetik.

– Aldiz ez dugu gure inkestetan (Iparraldean) ezer aurkitu Corominasen tesiaren indartzeko: dio “de origen incierto” dela “morcilla” hitza, bainan halere, Pouvreau eta Larramendi lagun, euskaratik datorkeela proposatzen du: etimoa liteke “*mokor, morko, mukur*”, “objeto abultado e informe”. Gogora jiten zaidana da bakarrik Pagolako saildu mainguen itxura. Aldiz *mukur, morkor*, etabar agertuko zaizkigu beste galdera zenbaitetan, hala nola “grappe de raisin”, “motte de terre”, morceau de sucre” galderetan...

– *Tripot* Euskal Herritik kanpo non erraiten den ikertzea da: dirudienez, gaskoinez ez da oso zabaldua non ez den Biarnon eta Euskal

Herriko mugetan, jakina delarik etimoa bera arabieratik datorrela (ez da ez “budet” ez “botellus”). Fossat-en tesisa eta ALG bisitatu behar dira.

– *Odolki* hitzak kanpoko hizkuntzetan motibazio bereko kiderik baduen aztertzea da: ikus “sanquette” Biarnon.

– Etimoa aipatu-berri bait dut, mapa baten egiteko hizkuntza erro-manikoetan oso emankorra den etimoaren erizpidea euskararen atlasak ez duela baliatzen ahal denen gogoan daiteke. Erran nahi dut latinezko etimo batek eskaintzen ahal dituen geroztikako forma guziak ager daitezkeela atlas erromaniko batean eta askotan beste erantzunik ez dela agertuko eremu horretan. Euskaraz, kasu hori, aldiz, bakan ez bada, batzutan baizik ez da aurkezten; ondorioz, adibidez, latinezko soinu baten bilakera ez da egiten ahal galdera bakar batekin. Binperrez pentsatzen dugu lan egitea, beraz fenomeno fonetiko baten gertaketa guziak bilatuz tratamendu automatizatu baten bitartez, eta bereziki kode bat eman ondoan fonema bakoitzari. “Morcilla-boudin” galderan agertu den ahostun / ahoskabe distribuzioa ez da bakarrik ikertuko *odolgi* / *odolki* gertaketekin baizik eta beste erantzun frangotatik ateratako kasuekin.

* * *

Horra orain hirugarren eta azken adibidea: Euskaldun batek nola agurtzen ote ditu haren ondotik igaiten diren jendeak?

Inkestak egin aintzin, formula hauek orduaren arabera alda zitezkeela pentsatzen genuela erran behar da. Ikusiko dugu gauzak ez direla hain sinpleak izan.

ALDERA: 11.18, 11.19, 11.20, 11.21, 11.22, 11.23.

“Fórmulas de saludo”; “formules de salut”: (8.etan, 12.etan, 14.etan, 18.etan, 20.etan, 22.etan).

Herria: BAIGORRI Lek. 1 Zint. 3A Zm. 180.

ERANTZUNAK:

1. [apur] (18, 19).
2. [gawon] (22, 23).
3. [eyunon] (18, 19).
4. [aRaɛlaldeon] (19?), (20) ...L.+

Lekukoaren oharra:

(Goizeko 8.ak): egun on (eta erantzunak): sarri artio [s1aRiartjo]

[ikus1artjo]

[paslatueɸunon]

[paslatugawun]

[paslatuacaldeon]

(12.etan): egun on, [egwuerditan] kanbiatzen da

(2.etan): [acaldeon] ...l ..

(5.etan): [acaldeon] eta [gawon] ilhuna hurbiltzen delaik.

[bailsurieri] noiznahi ematen ahal den arrapostua (aparte): jaten delarik [badeaapetitu], [badoa], [ondaiisula] (5), [ondaiisila] (5').

Ezezko datuak:

βC: “adio”?; adio [adjo] bereziki gazteek erraiten dute, orenari kasurik eman gabe. (L.ek dioenez, adio erraiteak ez du fisik egitekorik toka edo noka hitzegi-tearekin; gazte batek zahar bati ere bai: agur edo adio).

Transkribatzailearen oharrak:

1.ikus aldaerak: “gau on” eta “gau un”; “arratsalde on” eta “atsalde on” (?).

Metodologia-oharrak

1. Errealizazio fonetikoak eman dira; forma ortografikoak ez, denbora irabazi nahian.

2. *Adio*: gazteek bereziki erraten omen dute, eta noiznahi, orenari kasurik egin gabe. Hori lekukoak ez duela hain begi onez ikusten agertzen da. Beraz heteronimia-faktorea diakronian dago ere bai.

3. *Jinkoa* aipatzen duen formularik baden inkestagileak ez du galdegin.

4. *Agur* dio lekukoak; inkestaegileak ez zuen pentsatu egiaztatzea ea benetan “agur” den lekukoak emaiten zion hitza elkar ikusten zutelarik. Ezetz iduri luke baina magnetofoiak *agur* besterik ez du grabatu (ezetz diot, zeren eta, J. Haritschelhar eta E. Larre Baigorriarrek erranik, *agur* baitzen Baigorri kokatu zen Gipuzkoar bati eman zioten izengoitia 1936. urtean!).

Herria: MUGERRE

ERANTZUNAK:

1. [eyunon], [ikuslartjo] (18); (19)

edo [paslaasueɸunon]

edo [aacaldeon] (20), (21), (22)

Lekukoaren oharrak:

Egunon eguerdi arte; Arratsaldea heldu da oren batetik harat eta [aaclaldon] ...l.. [aaclaldeon] ...L..

ilundu eta [gaulon] eta arrapostia [gislaβera]

Ezezko datuak:

“bai zuri ere”?; ez, gisa bera.

βC: “adio”?; [esaðjóilk], berriz ikus artio. [aðjo] sekulako, hartan fini. Haurrek gehio ernten dute [aðó:]. Nik adio ernten bere izenez, Jean, Polo, oiko (?) gaztek ez tute pronunzatuko zure izena: [aðjo], aldiz guk [aðjo] Jean edo Mayi.

I. Eta jaun erretorari?

L. [aðjo Jaulnerretora] eta boneta altxatuz.

Transkribatzailearen oharrak

1. Gazteen aldaketa.

Metodologia-oharrak

1. Erantzun guziak ez dira eman behar den tokian.
2. *Adio* forma interpretatzen du “betikotz” balitz bezala. Hortik dator hitz-joko dirudien *ez adiorik* erantzunak.
3. Gazteen forma dela dio lekukoak, Baigorri bezala (ez da alde).
4. Gaur agurtzen den jendearen izena ez dela haboro gehitzen erraiten du lekukoak, piska bat gaitziturik.
5. *Jinkoa*-rekilako formularik ez du proposatu inkestaegileak.

Herria: PAGOLA Lek. 1. Zint. 7B Zm. 182.

ERANTZUNAK:

1. [Jinlkwateilsjelaeÿnhún] eta oai [eÿnhún].
2. [arrestihún].
3. [gailhún].
4. [deilsjela] edo [deilsyla].

Lekukoaren oharrak:

Jinkoak deiziela egün hun, oai egün hun, egüerdi artio eta egüerdi iganez geoztik, arresti hun. (gero) gai hun. Deizila edo deizüla; [bailsuile].. Eta khantin igaitiarekin, haurrek e frankotan etzie kasüik iten e, nik bethi bonjour egiten, (...),

lehen haurrek erraiten zizien lehenik ta bai zùì e emaiten zin arrapustia, oai haurrak igaiten tüzü deusik erran gabe.

Eta urdek hū iten zutela erraiten zizien igaitiaekin eta horrek eztik hua re egin.

Ezezko datuak:

α C; “agur”? ♦ .

β C; “adio”? \approx [adio] üsin, khantin igaitiaekin e bena konbersasionia finitü ondun, phartitzeko, [adió] - [bailesadioilk] bestiak. (deneei erraiten).

“adixatz? ♦ biarnesez.

Transkribatzailearen oharrak:

ϕ

Metodologia-oharrak

1. Oharrik mikorik ez du egin inkesta-egileak.
2. “**Bonjour**” forma ez da eman erantzun gisa: zergatik?
3. Urdeei buruz apuntatu dena ez da zehatza eta ez da aise ulertzen (ulertuko da beste herrietan bilduari esker).
4. Jinkoa aipatzen da formuletan.
5. Jendeek elkar ez agurtzea gaurko usaia dela dio lekukoak.
6. *Adio* despeditzeko forma dela zehazten du.
7. **Ez adiorik** formulak, hemen ere, *adio* nolazpait motibatua dela erakusten du.

Herria: LARZABALE Lek. 1. Zint. 2A Zm. 540.

ERANTZUNAK:

1. [eγúnon Jinlkwakesasjelaeyunón] [goilsik baaille]
2. [eyunon].
- 3.4. [acláldehun].
5. [gau] on].

Lekukoaren oharrak:

(8.etan) egun on Jinkuak ezazila egun on, goizik bahaile

(10.etan) egun on

(12.etan eta 14.etan) atsalde hun

(18.etan) gau on eta oherakoan [Jinlkwakesasjela gaulon], leheno, oai ez. Eta (partitzean) [berrisartjo], [ikhuzlartio], [adió] ere.

◆ [esadioilk] erraitenbeitute [adioslekhúkakoc], salbuik noaiték erraiten die-laik adio, ez adioik la réponse.

+ [urdek wū iten die] arrailkerian erten (norbaitek ez bazuen nehor agurtzen), oai ezta kasuik egiten, ezbeitute [elhéilk emáilten] (= ne pas adresser la parole).

Ezezko datuak:

“adixatz”?; ◆ ez, biarnesa hori.

αC; “agur”?; Laphurdin ◆ [ayur].

Lekukoaren oharrak:

1. “Bahaile”; cf Aditz-morfologia.
2. “Salbuik”; semantika.
3. “Adio” ez da erraiten erreterari.

Metodologia-oharrak

1. Formula guziak ez dira eman erantzunen tokian.
2. *Bahaile* formari buruzko oharra ez da aski zehatza: *ibili* OR I 2 (Allièresen kodean).
3. **Adio** hemen ere “betikotz” gisa ulertzen da.
4. **Urdeak** berriz agertzen: norbaiten ondotik agurtu gabe ezin dai-tekeela igan azpimarratzen du lekukoak.

Herria: SOHÛTA Lek. 1. Zint. 2A Zm. 142.

ERANTZUNAK:

Lekukoaren oharrak:

ezaguna bada (agurtzen da)

(8.etan) [eynhón]

(12.etan) [arrestí hón]

eta [gaií hón] ülhünari büüz

(erantzunak):

[bail hie], [bailsjére] edo [bailsjere pharte hú/ón]

◆ [z2inlkwadeilsjela eynhon] oai ere (zenbaitek)

[adio] re

[isanúnclá]

[berrisárte]

[slarriárte]

◆ [aðis2ác] biarnesek

◆ [c2áo] frantsesez.

+ (jendea ez agurtuz geroz) [urdékeerrailten die eγyn hón] entzun dit etxekoer, ütsü züzün gizon bat, eta urder errapostia eman ziezün ustez khantian norbait bazela: bai zier e erran ziezün.

Ezezko datuak:

αC; “agur”? ez.

Transkribatzailearen oharrak:

∅

Metodologia-oharrak

1. Oharrak ez dago eginik.
2. Lekukoak berak emaiten ditu beste nonbaiteko formulak.
3. Urdeaz ere mintzo da; itsuaren narrazioaren bitartez, agurtzeko formulazioa automatikoa dela, erran nahi baita beharrezkoa dela markatzen du.

Herria: ISTURITZE Lek. 1; 2, Zint. 2B Zm. 680.

ERANTZUNAK:

1. [eyunhón] (18).
2. [acláaldeon] (19, 20, 21).
3. [gaulhón] (22, 23).

Lekukoaren oharrak:

(emaiten den arrapostua)

[bailhirié], [bailsurié], edo [gislaβera]

[gaulhon Jaulnatisula gaulhon]

(bainan) [adio] arribatzian edo pasatzian [addo] lagunen artian.

I. Apezari?

L. Ez, ezagunari [addo], edo [ayurdJaulna].

+ Itsu bat, bidian johan eta, urketa eh! Bazitiin bere usaiak eta johan zen makhila eskian uraan xeka eta bide-bazterrian pasatzian, zeit aditu ziin eta “bai zuri re” eta zerri bat zen. Jendia hurbiltziarekin zerriak in ziin [khwēn1k] eta hak ezpitziin ikhusten, bai zuri re, uste ukhan ziin norbeit zen...

Ezezko datuak:

“Parte hun”?: ♦ [partehún] Amikuzen.

Transkribatzailearen oharrak

1. “Egun hon” eguerdi artio.
2. Narrazio etnografikoa.
3. “Adio” erabilerak araudiak badituzke.

Metodologia-oharrak

1. Erantzun guziak ez dira beren tokian.
2. Apuntatzekoa da: **johan zen** (= “bazihoan”, ez “joaiten zen”).
3. Jinkoa aipu da.
4. *Adio* ez dela errespetu haundiko fórmula ageri da.
5. Urdea berriz ere: eta itsuaren historia.

Herria: BASTIDA Lek. 1. Zint. 6B Zm. 010.

ERANTZUNAK:

1. [ayur], [adio].
2. [eyunón].
3. [aac1aldeón].
4. [gaulhón].

Lekukoaren oharrak:

(emaiten diren arrapostuak)

[aðio], [ikhuslartio]

[isánunclá]

[bailsieRe]

eta [Jin1kwatisila gauhon]

[Jin1kwatisila eɸnón]

(agurtzen ez delarik) hori [muthur dun] edo [mus d0 por].

Ezezko datuak:

βC; “adio”; ♦ [esadióik] ez adioik partitzian [adiú], [kímba], [oR0ved0], [adic2ac] à deux ou trois.

1. Bakarrik baldin bada? L. [adiú].

Lekukoaren oharrak:

1. Egun on goizean eta eguerdi artio.
2. “Agur” eta “adio” ikustean edo partitzean.
3. Gaskoinezko formak aldatzen dira singularretik pluralerat.

Metodologia-oharrak

1. Lekukoak gaskoina badaki.

2. Urderik ez du aipatzen bainan *mutur*, eta **mus de por** bai. *Mutur*aren balio semantikoa interesgarria da hain zuzen jendetasun-eza mar-katzeko. Jakina denez *mutur* hitza ez da errexki aplikatzen gizaki bati ez baldin bada “arima salbatu ta” bezalako formula baten laguntzaz. Ikuste-koa da beste galdera batean *mutur* ez ote den agertuko, “maugréer, boulder” galderetan konparazione: (*muthur doo*, “il boude”).

3. Lekukoari gaskoin aditzaren morfologia gardena zaio: *adiu* eta *adixatz* ongi bereizten ditu elkarretarik. Beraz, gaskoinez, *adiu* hikako forma dela badaki erromanista guziek bezain ontsa.

Herria: ALTZAI Lek. 1. Zint. 2A Zm. 075.

ERANTZUNAK:

1. [eynhún], [bonz2ur] (18, 19).
2. [arresItihún] (20, 21).
3. [gailhún] (22, 23).

Lekukoaren oharrak:

[bailsuié].

[z2inlko húnak deisyla gail hún] ohilat juaiteko (norbaitek ez bazuen agur-zen) [borthakwek e hōrrrr eiten die], [s2erriak e mincacen día], edo [myty hisa bail].

(partitzean) [berrisártino] edo [adjo] juiten delaik (ez etortzean). Frantsesez ba: adieu, comment vas-tu? edo phartitzian [isanciteúnc1a] (adio erran daiteke ere zuka). Heltzen delaik [núlasia] edo untsa ezagutzen delaik [baduá], eta ziek ♦ [Junendéa] edo [3uiltendea].

TR. oharrak:

1. Egunean hiru formula.
2. Urdearen onomatopeiaren transkribaketa dudazkoa da.
3. Manexen formak (ezezko datuak) bere baitarik eman ditu.

Metodologia-oharrak

1. Hemen “bonjour” erantzun gisa apuntatu da.
2. Beste nonbaiteko formulak berak eman ditu; manexenak hain zuzen, Iratiko eremuan artzain egonik, Manexak han gurutzatzen bait ditu.
3. Hemen ere urdeak aipu, *borthako* eufemismoarekin.

Herria: LARRAÑE**ERANTZUNAK:**

1. [gai|hu~n].
2. [eryn|hu~n].
3. [arres|tihu~n].
4. [arra|aldehu~n].

Lekukoaren oharrak:

Gai hun beantilat, egün hun goizian, gero arresi hun eta arratsalde hun arrestia abantzatü ondun; (arrapostuak): [bähie], [bérgiz|lan], [bái|surie] (ez agurtezarekin) urdez e [hy] iten beiti3 (irriz) uano hua errapru~ bat da, nurbaitek, ni iganen nitzaitzü zure khantín adio ez jeusik erran gabe, zük behala erraen düzü e iten die igaitin [hy].

Ezezko datuak:

β C: “adio”? uano re. Lehen e, bena ordian phartitzeko: sekhülakotz, edo [adio|lkes].

α C: “agur”? ez. Oai (orai erraiten edo entzuten dela) “agurtu”? ez.

TR. oharrak:

1. [nicái|cy]: izan I15, ik. aditz-morfologia.
2. urdearen onomatopeiaren trankrib. dudazkoa.

Metodologia-oharrak

1. *Erraprū*: hitza apuntatu da; harekin batera jaso behar da taxonomia metalinguistikoa (*errapru*, *hizkuntza erran thermañu*, etaba).

2. Urdeak berriz.
3. *Adio* despeditzekoa dela.

Herria: ESKIULA Lek. 1. Zint. 2B Zm. 200.

ERANTZUNAK:

1. [z2in]kúak deilsjela eɣyn hũn].
2. [z2in]kúak hunat deilsjela arresl̥ti hũn].
(29 fonema (= letra + diakritikoa) + 4 zurigune).
3. [z2in]kúak deilsjela gail hũn].
4. [eɣyn hũn].
5. [arresl̥ti hũn].
6. [gail hũn].

Lekukoaren oharrak:

(1., 2., 3., erantzunak) lehenago.

(4., 5., 6. erantzunak) orai.

(arrapostuak: [bail ta sue pharte hũn], hua bethi.

1. Gazte batek zuri adio erraiten ahal du? (zu = lekukoa, 85 urtekoa).

L. Ez hanbat, [adio] lagünen artian, üsü; [berrisártino], erran nahi dü, biarnesez [adiu] ça veut dire au revoir, edo [adisapotapebla] adichats vient d'une déformation de [adiu siac] soyez à Dieu.

+bidenabar, lekukoaren emazteak senarrari diona Oloronerat joanbeharrean:

L2. “debrullatüko hiz?”.

L1. Joaiten ahal hiz, fidel izanen nün.

Ezezko datuak:

αC: “Agur”? ♦ Agur? Txostakan, ba hori manexa da.

Transkribatzailearen oharrak:

1. Ikus egungo eta lehenagoko formak.
2. Adio: ik. Palay biarnesez.
3. Toka eta noka ari dira senar-emazteak; ik Aditz galdakizuna.
4. “Agur”: balio ludikoa; trufa-aire.

Metodologia-oharrak

1. Gaskoinez ez da mintzatzen lekukoa (ez zen mintzatzen, hila baita P. Orbiscay adiskidea) bainan ulertzen zukeen.

2. *Adio* errespetu gutiagoko formula dela zehazten du.

3. *Adio* hitzaren biarnes etorkia ez du dudan ezartzen eta “**adixatz**” formaren dioena zuzena da: “siats” hori baita pluraleko forma (euskaraz, *zaitetz* edo *zaitetzte* liteke).

4. *Fidel izanen nün* pasartea zertara datorren baten batek galdegin lezake. Ohar hau aditz-galdakizunean sartu behar da erreferentzia gurutzatuen bitartez. Toka ta noka mintzo direla bi lekukoak bidenabar hemen entzun da eta apuntatu, gerta bait daiteke gero lekuko batek erabilera hori ukatzea (ez da kasua izan lekuko honekin), dauzkan edo xertatu dizkioten eritzi edo aurre-iritzi linguistikoak direla medio, partikulazki hikako tratamenduaren kontra.

* * *

“Formules de salut” galderaren inguruan, horra beraz labur bilduz egin daitezkeen oharrak.

Galdera honetan ez dira uste zen bezain sinpleak agertzen diren erantzunak. Ez dira bakarrik orduaren arabera moldatzen, kontuan hartu behar baita bestalde:

– Mintzatzen dena gazte den ala zahar.

– Nor nori mintzo den, errespetua markatuz ala ez.

– Jendeek elkar ikustearekin ala edo elkarretarik bereiztearekin baliatzen duten.

Ikusgarri da nola bestalde *jinko* hitza, dirudienez, gero ta gutiago erabiltzen den formuletan eta ber denboran nola sartu den *adio* hitza lehengo ñabardurak lehertuz, bainan gaskoinez duen balioa arras galdu gabe, gehienetan *ez adiorik* arrapostua eragiten baitu, frangotan despeditzeko formula gisa baliatzen baita, eta askotan adin bereko edo maila bereko lagunen artean erraiten baita, azken honek gaskoinerazko hikako formaren oihartzuna erakusten baitu. Bi hizkuntzen arteko hunkipenaz ere informazio baliosa emaiten du erantzun sorta honek.

Komunikazioaren etnografiaren aldetik, ohartzekoa da ere, zein gaizki ikusia den (zen) jendeek elkar ez agurtzea. Horren markatzeko denetarik bada: onomatopeiak, esaerak, narrazioak, protagonista zenbait hala

nola urdea eta itsua. Eta sinbolikaren munduan ezaguna den bezala, itsuei esker jendeak gauza frango ikus dezake.

Ohargarria da ere naizen transkribazaileak ez duela kuadernoko-notetan nehon aipatzen zein gaizki ikusia zen/den *egun on* erraiteak destenorez, erran nahi baita egunaren bigarren partean, alegia bazkal ondoan. Alta, hizkuntzaren didaktikaren aldetik, egitekoa den ohar horrek badu bere garrantzia.

Kapitulu hau ez nezake utz azken ohar bat errepikatu gabe: informazio hauek, maparatzen ez badira ere, lo egon behar direa gure inkesta-kuadernoetan?

ONDORIO OROKORRA

Hiru galdera hauen inguruan bildu diren erantzunak ikusi ondoan, balio du bi gogoeta egitea Atlasaren helburuez. Galdera gehienek mapa batean agertu behar litezkeela ezaguna da. Bainan, **mapa zertarako?** liteke gure kezka objektu linguistikoak maparatu aintzin.

Heteronimia bat, ongi haztatua izan den heteronimia baten berri emaita eta *erakustea* modu ikoniko batez, hori da maparen helburua.

1. Orai artio, edo hobeki erranik, gaur ere, badago Gilliéron-en kartografia-modua hurbiletik segitzen duen dialektologo hanitz; Gilliéron-en metodologia ezin hunkituzko axiomatzat daukate dialektologo horiek. Zein da Gilliéron-en kartografia hua? Herri batean eman den erantzunaren errealizazio fonetikoaren transkripzioa herri horrek mapa batean duen tokian kopiatzea.

Bidenabar, erran dezagun erantzun **bakar bat** baizik ez zegoela Gilliéron-entzat, bigarren erantzunik ez baitzuen jaso nahi.

2. Gaur, ezinezkoa iduritzen zaigu hain hertsiki jokatzeari, erdal adierazi bati ez bait doakio beti euskal adierazle bakar bat (aipatu gabe lan honetako adibideek erakusten dituzten galdera irekiak, bederen erantzun bikunak eragiten dituztenak).

3. Errealitate linguistikoaren murrizketa ekartzen du Gilliéron-en ikusmoldeak. Adibidez “*morcilla, boudin*” galderan, herri batean **tripot** formaren berri emaita besterik gabe, ez da hain objektiboa, dakigularik **odolki** forma ezaguna dela ere. Maparen helburua zein den garbi adierazi behar du eta ahalaz ezplizitoki mapen egileak. Helburu hauek guziak hemen ez da aipatzerik. Markatu nahi dudana da Gilliéron-en kartografia soluzio bat dela beste askoren artean eta ez soluzio bakarra, are gutiago kartografia objektiboaren ondorioa. Hautu baten ondorioa da.

4. Beraz mapa baten bitartez emaiten den “bisualizazioa” **hautatzen** da, nahi ta ez; fenomeno linguistiko baten bisualizazioa interpretazio baten freitua da. Fenomeno batean zoin alderdi utziko den gehienik ilunpean edo agerian maparen bitartez interpretazio baten ondotik **hautatzen** da.

5. Mapa bera egiteko semiologia grafikoa baliatu behar da; “bizualizazio” modua eta maila **hautatzen** dira. Mapa-mota batez Himalayatzat ekarria dena, beste batean satorroskitzat utz daiteke.

6. Mapez bestalde dagoen informazioa eman behar da: edo mape-tako leiendetan, edo mapetatik kanpo, maparatzen ahal ez den informazioa delarik. Adibidez “formulas de saludo-formules de salut” galderan agertu da herri anitzetan jendetasun-eza nola markatzen duten lekukoek urdearen agurra aipatuz. Esaera, onomatopeia edo narrazioen bitartez adierazten dena isomorfia bezalako zerbait dela sumatzen da. Testuek honen berri emaiten dute. Testuak diren bezala maparatzeak ez du zentzurik. Baina testu hauek mapan ez sartuak izanik ere, ez du erran nahi linboetara igorri behar ditugula.

7. Orijinaltasun haundiko informazio-iturria da inkestagintzak bildu duen dokumentazio hau: kontsultagarria izan behar da bai mapak egin aintzin, frangotan maparen egitura determinatuko dutelakotz, eta bai mapez bestalde, gainerateko informazio-kopuru haundia dakarrelakotz. Horrek eskatzen du datu-basearen egitura aski zorrotza izaita, behar bada “hipertestu” deitu tresneriaren bitartez. Kontuan har ditzagun nolako aktibitateak agertu beharko diren lekukoek produzitotik:

- Aktibitate parafrastikoa: definizioak, zuzenketak.
- Aktibitate fraseologikoa: esaerak, metaforak, paremiologia.
- Aktibitate lexikografikoa: lexia ez ezagunak, guti ezagunak, adiera berriak, teknikoak,...
- Aktibitate gramatikala: egitura sintaxikoa, aditz-formak, deklinabide-kasuak, erabilera ohargarriak.
- Aktibitate fonikoa: errealizazio fonetiko ohargarriak (askotan apropos egindako galderan agertu ez bezalakoak).
- Aktibitate metalinguistikoa: komentarioak hizkuntzari buruz.
- Jakitate entziklopedikoa: enpirikoa (etnografia, antropologia).
- Informazio ikonografikoak: eskemak, argazkiak.

Adibideak milaka daude.

8. Ezinezkoa dirudi testu hauek kontsultagarriak izaita ez baldin badute “indexazio” on bat jasaiten. Ez ahantz kopuruak haundiak direla:

2.800 galdera 145 herritan. Segur aski 500 milio byte baino gehiagoko basea izango da.

Gainera, gaur inkesta-egileak zintatik jaso ez dituen testu-zatiak bihar etzi transkriba daitezke. Posibilitate hori ez da gaurtik, hatsarretik moztu behar ez eta ere testu hauen esplotazioa eta edizioa.

9. Atlasak bi koordenatu nagusi dauzka: mapak (datuen "bisualizazio" bat bainan datu batzuren eta ez datu guzien "bisualizazioa), eta bildua den testua.

Biak, mapak eta datuak elkarren bete dira nerretzat. Bien berri eman beharko du sistima informatizatuak.

10. Ulertzen denez, sistima hori eraikitzea ez da berehala egiten den gauza: ari gara martxan jartzen bainan ez da dudarik horretarako laguntza tekniko behar dugula informatikaren aldetik. Laguntza honek bi kalitate behar ditu oroz gaineratik; goi-mailakoa eta iraupen haundikoa. Euskaltzaindiaren bitartez, laguntza hori Atlasak segurtatua duela jakiteak urtzera doazen hódeien artetik zeruzaharra erakusten digu.